

...eta

# Kitto!

887 zkia.  
2014-IV-25

## ARGAZKILARITZA *maiatzean*

**HILABETE OSOA**  
*KLIK-en artean*



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak  
Gremioen koordinazioa etab.



**JORGE VEGA S.L.**  
**IGELTSERITZA**

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34  
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com



## Batxilergorako Eskaintza (A eta D) 2014-2015

**Zientziak eta Teknologia  
Giza eta Gizarte Zientziak**



943 12 16 98  
[azitain@lasalle.es](mailto:azitain@lasalle.es)

## ASTEAN ESANAK

"Batzuentzat teknologiak urrutikoa gerturatzeko eta gertukoa urrutiratzeko balio badu ere, eskolan eman den esku-tableten erabilerak kooperazioa handitzeko balio izan du eta komunikazioa hobetzeko. Homo teknologikoa bihurtu garenetik babestuago gaude Alzheimerren gaixotasunarengandik"

(GURUTZ LINAZASORO, SENDAGILEA)

"Denbora partzialeko lana guztiz onuragarria da. Holandako gizarteak bide horri jarraitzen dio, aitek lau egunetan lan eginez eta amek beste hirutan. Eta ez dago langabeziarik. Guraso biek euren seme-alabekin egotea ahalbidetzen du eta baita mundu guztia produktiboagoa izatea. Hori bai, jakina: arauak bete behar dira"

(LUIS GARIKANO, EKONOMILARIA)

"Estatistika Instituto Nazionalak plazaratu duen inkestaren arabera, erkidego autonomo honetako etxeen artean, laurdenean bizi da pertsona bakar bat; gehiengoa, oraindik, bikotetan bizi da, heren bat. Guztira berrehun milatik gora dira gure artean bakarrik bizi diren pertsonak, adin guztietakoak. Alemanian ia erdira heltzen dira biztanle bakarra duten etxeak; Parisen erdia dira eta hortik gora Stockholmon"

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

**KALE-BATZE.-** Zerbaiten alde kalean egiten den diru-batzea. "Lagun arteko gaztiak, gaur kale-batzia dabe, itsasuan galdu diranen famelixen alde".

**KALEKUME.-** Kaletarra, baserrikoa ez dena. "Hónek kalekumiok tomatia arbolan hazten dala uste dabe".

## eskutitzak

### ORERETAKO SAGARDO EGUNAREN ANTOLATZAILEEI ESKERRAK EMANEZ

Orain dela bost urte Marisol eta Koldo Oreretako Sagardo Eguna ikustera eta ikastera joan ziren. Jesus egin zuten kontaktu. Denbora gutxian bilera prestatu zuten Eibarko Sagardo Eguna hobetzeko asmoarekin. Bilera horretaz askotan gogoratu gara. Hain izan zen hunkigarria, hain familiarra... ezezagunak ginen eta Jonen sukaldeko mahaira jarri gintuzten, alaba txikia alboan. Gazta, sagardoa, in-txaurrak eta ardoa ez ziren falta izan gure esperientziak trukatzan genituen bitartean.

Koldori beti gustatu zaio bilera ostean "replay" egitea eta bere konklusioa izan zen: "Ez dakit aurtan Sagardo Eguna egingo dugun edo ez, baina gaur lagunak egin ditugu". Beste behin, Koldok

arrazoia zeukan. Lagunak... eta zelakoak gainera! Oreretako laguntzari esker, bultzakada handia eman genion gure Sagardo Egunari.

Aste honetako martitzenean Oreretako Sagardo Egunaren antolatzaileek, euskara eta euskal kultura bultzatzeagatik, Koldo Mitxelena Zumaran omendu dute, euren ikurra senideei eskainita eta Arramendiko kaskoan sagarrondo bat bere izenarekin landatuta. Senideen, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eta bere lagunaren partez, **Eske-rik Asko!**

Koldoren indarra eta energiari, zuen eta gure artean, luzaro eutsiko diogu.

**JULIAN FERNANDEZ GOIKOETXEA**

### EIBARKO PABILIOIA PRIMERAN LAGA BEHAR DUGU!

Zapatuan Eibar Kantuan emanaldi berria izango da Astelena frontoian, gaueko 22.30etan hasita. Eibarko Txirrindulari Elkartek antolatuta, Eibarko Udalaren eta EITB-ren laguntzari esker, ekoizpen berritzaileak izango dugu eta grabatutakoa beste egun batean eskainiko du telebis-tak. Pare bat ordu iraungo duen emanaldian jardungo duen talde bakoitzak lau abesti kantatuko

ditu, talde bakoitzak erregistro desberdinarekin, eta ekoizpena ere goi mailakoa izan dadin saiatu gara denok. Giro ona borobildu dezagun, ikasita ekarrizue "En viejo San Juan", emanaldia amaitzeko abeslariarekin batera guztion artean kantatuko duguna. Apostua dugu Eitb-ko jendearekin eta Eibarko pabilioia Primeran laga behar dugu!

**RAMON ARIZAGA (EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA)**

**OHARRA: Maiatzaren 1-aren zuzia dela-eta, datorren astean ez da alerik egongo. Hurrengo maiatzaren 9an kaleratuko dugu.**

**BITARTEAN ONDO PASATU ETA BARKATU ERAGOZPENAK. Erredakzioa**



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Koldo Badillo

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.150 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGÉ-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)**

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

## Koldo Mitxelena omendu dabe Oreretan

Oreretako Sagardo Egunaren antolatzailliak euskeria eta euskal kulturia bultzatziagaittik Koldo Mitxelena Zumaran omendu eben martitzenian, bixar ospatuko daben Sagardo Egunaren presentaziñuan. Ekitaldi benetan hunkigarrixan oreretarrak euren ikurraren oroigarrixa eskindu zetsen famelixakueri eta, horrekin batera, Arramendiko kaskuan Koldoren izenarekin sagarrondo bat landatu eben. Eibarko Sagardo Eguna hobetzeko asmuarekin, oin dala bost urte laguntza billa jo eben Eibartik Oreretara eta harrezkero hartuemon haundixa euki dabe herri bixetako Sagardo Egunaren antolatzailliak.



Martitzenian Oreretan egindako ekitaldixaren uniak.



## Santa Kurutzeko jaixak

Bixar hasiko dira Santa Kurutzeko jaixak ospatzen, 21.00etan Ixua jatetxian hasiko dan bertso-afari-xarekin. Bertan Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia bertsolarixak jardungo dabe eta txartelak 28 euro balixo dau. Eta maiatzaren 3an, Santa Kurutze egunian 10.30xetan kanpaiekin ekingo detse jai-xari. Jarraixan, 11.00etan meza ospatuko dabe ermittan Gorosta eta Mandiola auzueta hildakuen alde eta ondoren hamaiketakua egingo dabe. Eguardittik aurrera Oier Balzola eta Unai Andonegi

trikitilarixak eta haurrendako jolasak beteko dabe programia eta 13.00etan desafiua hasiko dabe iazko asto txapeldunak (Agarre Azpik) eta auzoko neska-mutillak. Ondoren Ixuan bazkaldu eta erromerixia egingo dabe. Eta domekan atzera be kanpaiekin eta meziakian hasiko dabe eguna. 12.00xetan soka-dantzia egingo da, Kezka dantza taldiaren eta Usartza txistulari taldiaren esku-tik eta jolasekin, kanpai hotsen artian agurtuko dittue aurtengo jaixak auzuan.

## 40 proiektu lehian T. Etxebarria sarixetan

Berrogei hautagaitza lehiatuko dira XXIV. Torbio Etxebarria Sarixetan: antolatzailliak jaso dittuen proiektuetatik 30 "Enpresa Ideiak eta Proiektuak" atalekuak dira eta beste hamararak, barriz, "Sormen eta Berrikuntza Teknologikoa Enpresan" atalekuak. Aurreratu dabenez, "lehian daguazen proiektuak hainbat sektoreri lotutakuak dira eta oso proposamen interesgarrixak" jaso dittue. Iazkuaren bidetik, ediziño honetan be Eibarren 2013an nabarmendu dan enpresa-ekimene bateri sarixa emongo detse.



## ANTONIO BARRIO GUEDE

I. URTEURRENA: 2013-IV-26

*"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"*

EIBARBUSeko LANTALDE GUZIA





ARGAZIAK: LEIRE ITURBE



IU Ezker Anitza

## II. Errepublikia gogoratu zan

Apirillaren 14aren bueltan, aurreko asteburuan hasi ziran II. Errepublikaren aldarrikapena gogoratzeko ekitaldixak. Ahaztuak 1936-1977 alkartekuak zapatu arratsaldian Untzagan alkartu ziran eta, errerepublikaren aldarrikapena ez eze, urtero holako egunian eurenkin batera egoten zan eta oin dala gitxi hil dan Casimiro Perez (Roberto Perez Jauregiren aitta) omendu eben. Salvador Amor eta Gabriel Ortégak kantaldixa eskinduta agurtu eben ekitaldixa. Ezker Anitzak domeka goizian ekin ze-

tzen ekitaldixeri, Ermutik Eibarrera egindako martxa republikanuaekin. Eguardixan Untzagan ekitaldi politikua egiñ eben eta, jarraixan, Marcelo Usabiaga militante komunistiak banderia igo eban. Eibarko Sozialistak be domeka eguardixan igo eben banderia Casa del Pueblo-ko balkoian eta astelehenian txapli-guak botata gogoratu eben aldarrikapenaren 83. urtemuga. Eta EH Bildukuak be astelehenian Untzagan egindako ekitaldixarekin gogoratu eben egun historikua.

## autuan

### ZIKLOMOTORREN INSPEKZIÑUA

Ziklomotorrak maiatzaren 6xan zezen plazan azterketa teknikua pasatzeko aukeria eukiko dabe, 09.00etatik 14.00etara. Txandia eskatzeko udaltzaiñeri deittu bihar jakue (943708424), probak 10 miñutuko iraupena dauka eta 26'97 euro ordaindu bihar dira.

### EIBAR LIBRE

Eibar Libre plataformiak egindako zozketan sarixa 231 zenbakixarendako izan da. Zenbaki saritua dakanak eibarlibre@gmail.com helbidera idatzi bihar dau sarixa zelan jaso bihar daben antolatzailliekin adosteko.

### ZULOAGATARRAK

Maiatzaren 3an, 19.00etan Ignacio Suarez-Zuloaga Galdiz, Zuloaga fundaziñoko presidentiak hitzaldixa emongo dau Portalean "Los valores eibarreses de los Zuloaga" izenburuari jarraituta.



### A P I R I L A

|    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|
| 1  | 2  | 3  | 4  | 5  | 6  |
| 7  | 8  | 9  | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |

### M A I A T Z A

|    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|
|    |    | 1  | 2  | 3  | 4  |
| 5  | 6  | 7  | 8  | 9  | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 |    |    |    |

### E K A I N A

|    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|
|    |    |    |    |    | 1  |
| 2  | 3  | 4  | 5  | 6  | 7  |
| 8  | 9  | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |    |

## 2014ko UDABERRIKO kultur ESKAINTZA

...eta kitto! Euskara Elkarte

Egin zaitez  
...eta kitto!ko  
BAZKIDE!



Euskara Elkarte  
Urkizu pasealekua 11, solairuartea  
20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 20 09 18  
elkarte@etakitto.com  
www.etakitto.com



## Eibarko Umien Koadernua martxan

Ego Ibarra batzordiak aditzera emon dabenez, aurten kaleratuko da "Eibarko umien koadernua". Sei urte bittarteko umiendako gure herriko kontuak, ipoiñak eta bertako gauzak batuko ditte eta margotzeko, marrazteko, jolasteko eta ikasteko balixo izango daben 20 orrialde inguruko komiki-itxurako kuadernoa izango da. Badihardugu, Jose Antonio Azpilikueta eta Ego Ibarra, hirurak alkarlanean jarritta asmatu dabenean proiektua umien gustokua izateko hainbat elementurekin "jantzi" dabe: Pantxika astuaren koka-jantzixa edo karetia umiak janzteko, Eibarko txori batzuk margotzeko, arropak moztu eta Eibarko foballarixak jantzi, Teknikerren ktBOT robot bat berregitia, San Blas opillen errezetia...

## Arrateko kolonia zabaltzeko prest

Laster zabalduko dabe Arrateko kolonia barrututa: 50 lagun hartzeko tokixa, basarritarren prestakuntzarako eta landa ingurunia biziberritzerako gunia eta gerrako frentearen interpretaziño zentrua eukiko ditte, bestiak beste. Gerrako Eibarko Frentearen Interpretaziño Zentrua izango dan gela trintxera baten moduan preparau dabe Bidark Arkitektura etxiaren proiektuari jarraituta eta Jesus Gutierrez historialarixaren eta Jose Luis Valencia eibartar bildumagilliaren laguntasunarekin. Horrekin batera zentruan Badiharduguk egindako ikus-entzunezkua, Eibarren izandako gerratearen maketia, bost panel eta beste materixal batzuk (uniformiak, kametak, gerran erabillitako materixal simulauak...), kartelak, banderak eta lau erre-

produkiño (kamioi blindatu batena eta hiru abioirena, Francisco eta Bernardo Prrez Guenaga eibartarrek egindakuak). Gerrako frentearen gertaera historikua ezagutera emoteko baliagarrixa izatiaz gain, zentruak turismua erakarri nahi dau, bertako eskintzari bisita gidatuak egitteko aukeria gehittuta.



## Bertso bazkarixa Legarren



Apirillaren 5ian giro ederrian emon eben bazkalostia Legarre Gain soziedadian, auzoko jai batzordekuak antolatutako bertso-bazkarixan. Mikel Arrillaga, Jokin Bergara eta Manu Goigana bertsolarixak Asier Ibaibarriagak emondako gaixeri bertsuak ipiñi zetsazen eta bertara juandakuak barre mordua egiñ eben.

### MAIATZA

#### Maiatzak 6, MARTITZENA

Euskararen transmisioari buruzko IV. MINTEGIA. Goiz eta arratsalde, Portalea Kultur etxean.

#### Maiatzak 11, DOMEKA

HERRI URRATS-era (Senpere) joateko autobusak.

#### Maiatzak 14, EGUAZTENA

IPURTERRE ipuin lehiaketako sari-banaketa ekitaldia. TXOBORRO magoaren ikuskizuna ere egongo da. 10.00etan, Unibertsitate Laboralean.



#### Maiatzak 20, MARTITZENA

"Udarik izango al dugu aurten?" hitzaldia, URKO ARISTI eta PELLO ZABALaren eskutik. 19.00etan, ...eta kitto!-n.



#### Maiatzak 31, ZAPATUA

TANTANEZ TANTAN, Eibarren euskaraz bizi! ekitaldia. Gantxilla eskuz esku, giza katean. 13.00ean Urkizuko iturritik hasita, Untzagaraino. GURASOAK BERBETAN EGUNA. Taldekoen arteko bazkaria eta jokoak. MINTZA EGUNA Izarran (Araba).

### EKAINA

#### Ekainak 1, domeka

IBILALDIA-ra (Gernika-Lumo) joateko autobusak.

#### Ekainak 11, eguaztenua

"EL CONQUISTADOR del fin del mundo" saioari buruzko mahaingurua, J. Luis Korta, Julian Iantzi, Josean Goñi eta lehiakide bat. 19.30etan, Portalean.



#### Ekainak 15, domeka

ARABA EUSKARAZ-era (Lapuebla de Labarca) joateko autobusak.

#### Ekainak 23, astelehena

SAN JUAN SUA. Ipurua Dantza Garaikidea taldearen ikuskizunarekin. 23.30etan, Untzagan.



#### Ekainak 25, eguaztenua

EUSKAL JAIALDIA. Herri-kirrol erakustaldia. 19.30etan, Untzagan.

...eta horrez gain: Barixakero ...eta kitto! astekarria. Hilero Txikitto! umeen aldizkaria. Astero Berbetan mintzapraktika taldeak; baita guraso eta dendarientzat ere. Itzulpenak eta diseinu lanak. [www.etakitto.com](http://www.etakitto.com)



## Beharginen eskubideak aldarrikatzeko sasoia

**AZKEN URTEOTAKO KRISIAK EZ DIE MESEDERIK EGIN BEHARGINEI.** Sindikatuek behin eta berriz errepikatzen duten moduan, langabezia tasak etenbarik gora egiten dihardu eta prekarizazioaren ondorioak latzak dira, gainera: urte honen hasieratik hona 15 behargin hil dira Euskal Herrian. Gauzak horrela, sindikatuek hitzordu garrantzitsu bi dauzkate aurretik: apirilaren 28an Lan Osasunaren Eguna gogoratuko da eta Maiatzaren Lehenean, berriz, beharginen nazioarteko eguna.

Eguaztenean Untzagan agerraldia egin zuten LAB sindikatukoek, datorren astean Maiatzaren Lehenaren harira antolatutakoak ezagutzera emateko. *"Euskal Herriko beharginok hemen erabakitzeko eskubidea"* aldarrikatzearekin batera, 2008az geroztik gure eskualdeko langabezia tasa bikoiztu egin dela gogoratu zuten. Gauzak horrela, datorren asteko eguenean 12.00-



etan eskualde mailako manifestazioa abiatuko da Untzagatik; hori amaituta, 13.00etan ekitaldi politiko sindikala hasiko da eta 15.00etan herri bazkaria egingo da (bazkarirako tiketak LAB-eko egoitzetan eros daitezke, 943820489 / 943797408 telefono zenbakietan).

### ELA, UGT eta CCOO Bilbon

Beste hiru sindikatu nagusiek, azken urteotako martxari jarraituta, Bizkaiko hiriburua aukeratu dute Maiatzaren Leheneko euren aldarrikapenak egiteko. Adolfo Mu-

ñoz ELAko idazkari nagusiak sindikatuko militanteei gonbidapen zuzena egiten die Maiatzaren Lehenean ELA antolatutako mobilizazioetan parte hartzeko: *"Aurten ere ha- maika arrazoi ditugu Maiatzaren Lehenean kalera atera eta bestelako eredu ekonomiko, sozial eta politiko baten alde mobilizatzeke. Ez hutsik egin!"*. Aurtengo goiburua "Gure eskubideen alde, kalera!" izango da.

Eta CCOO sindikatuak ere Bilbon egingo du manifestazioa, 11.30etan Jesusen Bihotzetik abiatuta (bertara joateko autobusa 10.30etan irtengo da Ego Gainetik) eta aurten Ignacio Fernandez Toxo idazkari nagusia Bilbon egongo da. Eta UGT sindikatuak eurekin batera abiatuko da manifestazioan 11.30etan Jesusen Bihotzetik (hauen autobusa, baina, 09.45etan irtengo da Ego Gainetik). Biek goiburu berari jarraituko diote: "Kalitatezko enplegurik gabe berreskurapenik ez".

**GURE ESKUBIDEEN ALDE**  
**kalera!**  
**MAIATZAREN LEHENA 2014**  
 ELA EUSKAL SINDIKATUA

**2014 maiatza**  
 Kalitatezko enplegurik gabe berreskurapenik ez  
 UGT Euskadi  
**EKITALDIA BILBON**  
**Jesusen Bihotzean 11.30etan**  
 AUTOBUSAK Unzaga Hoteletik 09.45etan

**MODU ERAGINKORREAN MOBILIZATZEN GARA LAN ETA GIZARTE ESKUBIDEAK ERREBINDIKATU, BABESTU ETA HOBETZEKO**

**MANIFESTAZIOA BILBON**  
**Jesusen Bihotzean, 11.30etan**  
**Autobusak Ego-Gainetik: 10.30etan**  
 CCOO euskadiko langile komisioak  
**maiatzak**

**Eskualdeko MANIFESTAZIOA**  
**12.00etan UNTZAGAtik**  
**MAIATZAK 1**  
**langileok erabaki**  
 Euskal Herriak erabaki dezan  
**LAB**  
**Herri BAZKARIA**  
**15.00etan UNTZAGAn**  
 TIKETAK SALGAI LABEKO EGOITZAN

Hamen dago beste behiñ, urteroko moduan, Klub Deportibuak maiatzaren hillabete osorako antolatzen daben programaziñua. Argazkilaritza Maiatzean-ek izena bakarrik ez, izana be hartu dau urtien poderioz eta aurreko hillabetietan prestatutako egitaraua errealidadia bihurtuko da datorren astetik aurrera. Jakiña, maiatza amaittu arte ikusgai egongo diran erakusketak izango dira protagonista nagusixenetakuak, baiña ez dira faltako ohikuak diran taillarrak, hitzaldixak, argazki-estudixua eta argazki-rallyxa. Deporreko Argazkilaritza Batzordekuak urte guztian ezin badira geldirik egon be, datozen egunotan euren zaletasunarekin gu guztiok "kutsatzen" saiatuko dira-eta. Hor dogu gozatzekua!



Leire Kareagak egindako marrazkixa erabiliko dabe argazki estudixuan.

## Loreen hillia ARGAZKIZ betetakua barrero be gure herrixan



Juan Antonio Palacios



Jose Ramon San Jose

**D**atorren asteko barixakuan inauguratuko da Argazkilaritza Maiatzean-eko aurtengo ediziñua **Garcia de Marina** Gijongo argazkilarixak Portaleako areto nagusixan eskinduko daben **hitzaldixarekin**. "Prosaikoaren poeta" deittuak argazkixen billuztasuna billatzen dau, bere irudixerri iñongo manipulaziñorik egin gabe eta, esaterako, iazko otsailian Arte Fotografico On line aldizkari ospetsuko portadia izan zan.

Egun berian, maiatzaren 2xan, zabalduko dira 25era arte iraungo daben izen haundiko bestelako erakusketak. Holan, **Portalean** aurkittuko dabe euren tokixa aittatutako Garcia de Marinaren lanak eta Reuseko **Enric Pàmiesenak**. Kataluñiako Argazkilaritza Federaziñoko Savi titulua dakan azken honek 1953tik 1983ra arte etarako fotografixekin "Trenta anys de fotografia" lana aurkeztuko dau. Portaleko hórrek erakusketok martitzenetik domekara arte egongo dira ikusgai, arratsaldeko 18.30xetatik 20.30etara arte.

Denpora epe horretan ikusi ahal izanango dira be Ceutako **Jose Ramon Joseren** lanak, baiña azken honenak Kultural Arrateko Topalekuan. Egille horrek Indalezio

Ojanguren lehiaketako azken ediziñuan Ohorezko Sarixa jaso eban. Topalekuko ordutegixa honakua da: egunero arratsaldeko 19.00etatik 21.00ak arte eta zapatu eta domeketan, ordutegi horretatik aparte, baitta eguerdiz be: 12.00xetatik 14.00xetara. Aukera zabala. beraz.

**Portalean** izango da, aittatutakuez aparte, beste erakusketa bat: **Portfolio Natural taldiak** eskinduko daben erakusketa kolektibua. Hor animalixak, landariak eta mineralak dira protagonista, "naturak eskintzen dittuen sormenezko begiradekin".

Ezin ziran falta, jakiña, hillabetez-hillabete herrixan argazki desbardiñak erakusten deskuen lokalen muestrak eta, horrela, **Deporren izango dabe tokixa Argizaiola lehiaketaren** 33. sarirako sailkatu diranak, tartian gure herriko Indalezio Ojanguren argazki lehiaketia. Deporreko ordutegixa martitzenetik domekara artekua da, 15.00etatik 22.00ak arte.

**Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekuak**, bestalde, euren lanak **El Ambigu tabernara eta Untzagako Jubilatuen Etxera** eramango dittue, Portalean egongo diranekin batera. Aurten fotografixia asmatu



argazkilaritza  
@depor  
eibar.com





Enric Pàmies




Rafa Alkorta

zala 175 urte betetzen diranian, egindako progresuak erakusteko asmotan eruangot ditue lanok, gero eta gehixago dira-eta, eibartarren artian, sarixak han eta hamen jasotzen dabizenak. Mailla haundikuak dagoz hor tartian.

#### Miñutularixak gogoratzen

Deporrekuak, baiña, badake beste egun haundi bat: hillaren 10ian argazki estudiantia muntauko dabe Untzagan, jendiaren parte-hartzia billatzen. Oinguan Leire Kareaga artistiak marrazkixa prestau dau jendiak horren aurrian posatzeko. Aurten, gainera, argazkilari miñutularixen lana gogoratuko dabe egun horretan. Goizeko 10.00etatik arratsaldeko 14.00xak arte egongo dira jendiari argazkixak etarutzen eta jendiari doan emongo detse fotografixia. Zer gehixago eskatu leike?

Urtero egitten dan beste ekitaldi bat ar-



gazki-rallyxarena da. Hori hillaren 25ian izango da eta domeka horretan jendiak izena emon ahal izango dau goizeko 08.30etatik 09.30etara arte Deporren bertan. Bi modalitatetan parte hartu ahal izango da: zuribeltzian eta digitalian.

Jardunaldixetako izen bat aittatzera-kuan, aurten Jose Manuel Naviari egin biharko jako toki berezixa, berak emongo dau-eta klase magistrala deittutakua, ohi-kuak diran argazkilaritza digitalari eskindutako taillarretan. Maiatzaren 17ko taillar hori Armerixa Eskolako areto nagusixan egingo da eta bi saio izango ditte: goizekua 10.00etatik 14.00xak arte iraungo dabena, eta arratsaldekoa 16.00etatik 20.00ak artekoa. Taillar horretarako 20 euro ordaindu bihar da eta plaza mugatuak egongo dira. Izena emoteko e-maila bialdu bihar da honako helbidera: argazkilaritza@deporeibar.com



Funeraria-Ehortzetxe  
**Mugica**

|   |   |
|---|---|
| <p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b><br/>Funeuskadi Eibar:<br/>Otaola, 27</p> | <p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b><br/>SIGMA Industrialdea<br/>(Olasoko hilerriaren ondoan)</p> |
| <p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>Bulegoa Bidebarrieta, 20</b></p>   |   |
| <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>                                     |   |
| <p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p>    |   |



**Haurreskolak Partzuergoko HAUR HEZKUNTZAKO** zentroetan  
0 eta 2 urte bitarteko haurren  
**IZENA EMATEKO** epea:

**maiatzaren**  
**5etik 14ra,**  
**biak barne**

**Eibarko Haurreskolak**  
**Orbea / Arrateko Andra Mari / Amaña**

*Eskaerak haurreskolan bertan lagako dira.*  
Informazio gehiago: [www.haurreskolak.net](http://www.haurreskolak.net)



**Diseinu Industrialeko eta Produktuen Garapeneko Ingeniaritzan graduatu ondoren, eta diseinu grafikoan jardun eta gero, Laura Albistegi eibartarrak moda diseinua bere bizitza estilo eta pasio bihurtu du. Gasteiz On Pasarelaren 25. edizioko irabazlea izan da, hiriburuko dendek antolatutako modako astean. Orain dela urte batzuk kirol arloan (atletismoan eta foballean) lortutako emaitzengatik orri hauetako protagonista izandakoak ibilbide berri honetan ere badihardu izena eskuratzen.**

**- Gasteizko saria eskuratu aurretik, hartu duzu parte beste inongo lehiaketetan?**

Beste bitara aurkeztu naiz, biak Bilbon, eta bietan finalera heldu naiz. Gasteizkoa da irabazten dudana lehenengoa: eguaztenean hasi ginen desfile-ekin eta, barixakuan sariak banatu zituzten arte, bitartean dendetako desfileak izan ziren.

**- Zelako diseinuak aurkeztu zenuen Gasteiz On-en?**

Lehenengo kolekzioa master amaierako proiektua izan zen. Bigarrenarekin, bestalde, lasaia go jokatu izan dut. Minimalista izan da zentzu guztietan. Batez ere, oihal zuria erabili izan dut bolumena emateko eta estan-patuak zeozer apurtzeko. Zuria, beltza eta marroia ziren nagusi.

**- Zelan ikusten duzu modaren egoera eta izan duen bilakaera?**

Moda oso ziklikoa da eta zaila da ezusteko handirik eragitea, zeozer guztiz apurtzailea asmatzea. Nire aldetik, ikasten jarraitzen dut: zelan diseinatu, josten... Dena dela, marketing-a da, niretzat, egin beharreko lehen urratsa. Eta, jakina, oinak lurrean izanda.

**- Badago tendentzia argirik mundu horretan?**

Tendentzia finkorik, ez. Irailean eta otsailean marka handiek euren lanak aurkezten dituzte

eta, horrelakoei erreparatuta, aurrea hartzen ahalegindu behar zara. Hala ere, mundu irekia da, aukerak eskaintzen duena.

**- Hemen asko jarraitzen dugu moda? Gazteon ardura pizten duela uste duzu?**

Gazteontzako modak abaniko zabalagoa eskaintzen badu ere, jendea ez da larregi ausartzen. Hemen, baina, kanpora irten barik, Roberto Lopez Etxeberria eta Ion Fiz diseinatzaileak ditugu. Eta Valenciaga modistoa... Jaungoikoa! Markak esentzia izaten jarraitzen dute.

**- Bada herrialderik modan berebiziko izena duenik?**

Patroi berdinak jarraitzen dira ia toki guztietan, hiri handietan jarrera irekiagoa bada ere. Herrialdeak baino, hiriburuak daude: Londres, Milan, Nueva York, Paris... Tokio hasi da orain. Japoniarrek, dena dela, bestelako estetika bat dute.

**- Hemendik aurrera nondik jo behar duzu?**

Patronajea ikasiko dut, emakumeena. Diseinua modu sako-nagoan dihardut prestatzen eta patroi eta kosturetan zentratu naiz. Kolekzio txiki batekin hasi naiz, linea bat sortzen, kalitatezko erroparekin. Lagun batekin taldea egin dut eta diseinu-web bat ere amaitu berri dut. Dena-tan fijaszen naiz eta apuntatu.




Laura Albistegi  
(MODA DISEINATZAILEA)

**"Modarena mundu irekia da, aukerak eskaintzen dituen"**

## BENEDICTA AMUATEGI ARIZAGA

1. URTEURRENA (2013-IV-27)



**FAMILIA ETA LAGUNEK ez zaitugu ahazten, bai osterata faltan botatzen.**

Bere aldeko MEZA Oroigarria izango da apirilaren 27an (domeka), eguerdiko 12.30etan, Arrateko santutegian.



## Gazte-txartelaren kirol-argazkien lehiaketa abian

Kirola maite baduzu eta argazki-kamerarik badaukazu, ez duzu besterik behar **Gazte-txartelaren** kirol-argazkien lehiaketan parte hartzeko. Berdin dio zer kirol-diziplina aukeratzun duzun, argazki guztiak Gazteaukera profilean ja-



riko dituzte, Flickr gizarte-sarean. Parte hartzeko baldintzak hauek dira: Gazte-txartelaren titular izatea eta aurkezten diren lanak originalak izatea. Parte-hartzaile bakoitzak nahi beste argazki bidali ditzake, beti ere kirolen bat egiten dagoen norbait agertzen bada. Argazkiek "jpg" formatu digitala izan behar dute, edozein prozedura teknikori jarraituta egindakoak izango dira eta kamera digitalarekin, telefono mugikorrekin zein bestelako gailua erabilia hartutako irudiak onartuko dituzte. Argazkiak koloretan, zuri-beltzean, sepian... egin daitezke, baina balorazio-arrazoak direla medio argazkiak ez dira izango panoramikoak, ezta diapositibak edota serieak ere.

Parte hartzeko modu bi daude: gaztetxartela@gmail.com helbidera "FotoGT" gaierekin argazkiak bidalita (izenabizenak, NANA eta telefonozenbakia adierazita) edo argazkiak Twitterren partekatuta (txioen bidez argazkiak partekatu nahi dituenak izenburu edo azalpen laburra idatzi beharko du eta kasu guztietan txioek bi "hashtag" eduki behar dituzte: #fotogt eta #gaztetxartela, @gazteaukera aipamenarekin batera eta parte-hartzaileek @gazteaukera profilean jarraitzaileak izan behar dute).

Parte hartzeko azken eguna 2014ko maiatzaren 22a izango da. Jasotako argazkien artean argazki bi sarituko dituzte eta irabazleek 250 euroko txeke



bana jasoko dute, kirol-materiala erosteko. Gainera, bi argazki irabazleak Gazte-txartelaren webgunean argitaratuko dira eta parte hartzen duten argazki guztiak Gazteaukera profilean jarriko dira, Flickr gizarte-sarean.

Inoiz ez da azkarregi  
heziketarik onena jasotzeko  
[www.aldatze.org](http://www.aldatze.org)



### ALDATZE

Colegio Santa María  
de la Providencia

Aldatze Kalea, 5 - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 70 11 50 - Fax: 943 70 13 04  
[aldatze@aldatze.org](mailto:aldatze@aldatze.org)



aldatze  
haur-eskola

aldatze  
batxilergoa

**AURRERMATRIKULA:**  
Maiatzaren 5etik 15era



# AUTOEN gehigarria



## Krisi-sasoian aurrezteko ideiak (onak eta txarrak)

### KRISI EKONOMIKOAK GIDATZEARI ERE ERAGIN DIO.

Gaur egun, auto bat mantentzea ez da merkea, eta ez dago guztion eskura. Krisiak aurrezteko ideiak aurkitzeko buru-azkartasuna areagotu du, baina guztiak ez dira gomendagarriak.

Gidatzeari buruz egindako ikerketa baten arabera, krisiak arlo askotan izan du eragina. Krisi-sasoian aurrezteko ez da beti segurua, eta hainbat kasutan horrek duen ondorioa kaltegarria da. Jarraian dituzue ideia onak eta txarrak (aurrezteko lagungarriak dira, baina arriskua ere izan dezakete):

#### IDEIA ONAK:

1.- **Gidatze eraginkorra.** Populazioak, orain, modu ekonomikoagoan gidatzen du. Bolantea hartzerakoan zakarkeria

ekiditen dute eta martxa luzeetan eta biraketa gutxiarekin gidatzen dute. Gainera, abiadura murrizten dute, aire girotua edo berogailua zuhurrago erabiltzen dituzte eta gurpilen presioa sarriago berraztertzen dute matxurak ekiditeko.

2.- **Prezioak alderatzea.** Baliabide gutxiago ditugunean neurri erabili behar ditugu, eta horregatik, gidariak zorrotzagoak dira orain, eta prezioak alderatzen dituzte zerbitzu bat ordaindu edo aseguru bat kontratatu aurretik. Adibidez, bidesaridun bideak gutxiago erabiltzen dituzte. Gasolinaren prezioaren igoerak ere badu horretan eragina, eta gidariak konfiantzazko gasolindegietara joaten dira.

3.- **Aurrezteko beste aukera bat bidaiatzerako orduan taldeak osatzea da;** horretarako ibilbide berbera egin behar

## J.A. LASKURAIN

ASEGURU ARTEKARIA S.L. D.G.S. 1.408 - J



### BIDAIA ASEGURUAK

R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza      Urtzaile 1 (alboko sarrera)  
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13  
943 12 05 30 / Faxe. 943 70 28 87

### ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

## GASOLEOEN BANAKETA



estación de servicio  
kantoi  
eibar



20.000 L.  
2.000 L.

**Otaola etorbidea, 13 -Bis**  
Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

**GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA**



OTAOLA, 9 - 2. esk.      Tel./Fax. 943 206 552

## IRH MOTOS EIBAR



## AUTO KONPONKETAK AURRERA

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/g      20600 EIBAR  
Telefono eta Faxe: 943 20 80 65      (Gipuzkoa)



# ZURICH

## Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

duten pertsonak, autoa eta gastuak partekatzeke, harremanetan jartzen dituzten zerbitzuak daude. Asteburuetako aisia-bidaia ere murriztu egin dira.

**4.- Isunekin kontuz.** Gidariak beldur gehiago diete trafiko-isunei. Krisi ekonomikoak eta kontrol gehiago egoteak arau-haustea murriztu dituzte, horiek eragin dezaketena inpaktu ekonomikoaren beldur.

#### IDEIA TXARRAK:

**1.- Azterketak atzeratzea.** Gidari batzuk ez dute orain dela laupabost urte egiten zuten mantenimendu bera egiten. Azterketak atzeratu egiten dituzte eta horrek eragin zuzena dauka bide-segurtasunean. Geroz eta gehiago dira beren autoa tailer txiki edo aukozkoetara eramaten dituzten gidariak, eta matxura txikia denean eurak konpondu edo ITV pasatu arte itxaroten dute. Aurrezteko ez da hori modurik egokiena, lehenik eta behin segurtasunarengatik, eta bigarrenik, isunarengatik.



**2.- Elementuez ez arduratzea.** Gurpilak, balaztak eta esekidurak baldintza egokian izatea ezinbestekoa da bide-segurtasunerako. Gurpilen presioa da gehien zaintzen dena, baina hala ere, istripua duten ibilgailuetako askok dute gurpilazalal egoera txarrean. Izan ere, krisiarenekin eraginez, gurpilen mantenimenduari jartzen diogu arreta gutxien.

**3.- Automobil-parke zaharkitua.** 2013an, Espainiako autoen batezbesteko adina 9,6 urtekoa zen; 2012koa baino zertxobait baxuagoa, baina kezka handia nolanahi ere. Laz DGT-k hainbat neurri hartu zituen Espainiako automobil-parkea gaztetzeko, hala nola, hamar urteko autoak zituztenei gutunak bidaltzea; gutun horietan zaharkitutako autoak gidatzeak segurtasunean eragin ditzakeen kalteez ohartarazten da. Bestalde, PIVE 5 Planaren 5. edizioaren bitartez, gure errepideetan dabilzan autoak berriztu nahi dira.

Torrekua, 2  
20600 EIBAR

Tel. eta Faxa  
943 20 62 48  
Tel. 943 20 70 31  
eseibar@facilnet.es

ESTACION  
DE SERVICIO **AVIA**  
EIBAR, S.A.

FURGONETEN ETA AUTOMOBILEN GARBIKETA  
AUTOMATIKOA ETA PRESIOAREKIN  
LUBRIFIKATZAILEAK  
GASOLEOEN ZUZENEKO BANAKETA

**24 orduetan zabalik**

[www.estaciondeservicioeibar.com](http://www.estaciondeservicioeibar.com)



[www.renault.es/posventa](http://www.renault.es/posventa)

KALITATEA ETA PREZIOA EZUSTEKORIK GABE

**ESKAINTZAN DAUDEN  
PNEUMATIKOEN BILA?**

**2X1\***  **MICHELIN**  
PNEUMATIKOETAN

**ZATOZ GAUR BERTAN RENAULT GAURSA-RA**

**ZURE RENAULTAK RENAULT MEREZI DU**

2014/05/30era arte baliozkoa Renault Gaurisa-n. Ez daude sartuta eskulana, ekotasa eta BEZa. Kontsultatu baldintzak kontzesionarioan. Ezin da eskaintza hau indarreko beste eskaintza eta/edo promozioi batzuei gehitu.

Renault gomendatzen du 

**DRIVE THE CHANGE**



**GAURSA** OTAOLA HIRIBIDEA, 22. TEL. 943 82 09 74. EIBAR [www.gaurisacars.es](http://www.gaurisacars.es)

## Gipuzkoako duatloi sprint txapelketa jokoan bihar 23. Eibarko Duatloian

Eibarko Duatloian 23. edizioa jokatu da bihar arratsaldean, 16.45etan hasita, eta Euskal Herriko duatloi zirkuitoko bederatzigarren proba puntuagarri horretan probintziako duatloi sprint txapela izango da jokoan. Antxintxiketan 5 kilometro egin ondoren, parte-hartzaileek 19 egingo dituzte bizikleta gainean eta, amaitzeko,

beste bi kilometro eta erdi antxintxiketan. Oinezko lasterketa biak herriko kaleetatik igaroko dira, bizikletan egin beharreko distantzia osatzeko bariantea zeharkatuko dute eta lasterketaren muina Untzaga plazaren inguruan egongo da, hor kokatuko baitira irteera, helmuga eta boxeak.

## Markel Alberdi igerilaria Europako txapelketara

Berlinen abuztuaren 18tik 24ra arte jokatu diren Europako igeriketa txapelketetarako Espainiako Federazioaren deialdian dago eibartarra, beste 23 igerilarirekin batera. Berak eta Nora Varela, bestalde, sasoi onean daudela erakutsi zuten Mallorcan jokatutako XV. Udaberriko Espainiako Open Txapelketan eta biek euren markak hobetu zituzten jokatutako proba guztietan. Varela 50, 100 eta 200 bularrean lehiatu zen, brontzeko domina bi bereganatuz 18 urtetik beherakoen artean, eta Alberdik 50 eta 100 librean eta 50 tximeletan Euskal Herriko marka berriak ezarri zituen.



Markel Alberdi eta Nora Varela.



## Eibar Rugby Taldearen bazkide kanpaina


Martitzenean, hilaren 29an, Guridi tabernan arratsaldeko 19.00etan aurkeztuko du Eibar Rugby Taldeak bazkideen kopurua igotzeko kanpaina berria. Hor emango dira ezagutzera egindako lau kartelak eta promozio bideoa. Bazkide egiteko jarraitu beharreko pausuak twitterren bidez klubak martxan ipini duen #rugbybazkide hastag-ean agertzen dira.

Bestalde, Amaia Telleriak zuzentzen duen nesken taldeak Madrilgo Olimpico Pozuelo B mendean hartu zuen Unben (32-17). Guztira sei entsegu lortu zituzten eibartarrek: Iratxe Fernandezek hiru, Amaiur Mayok bi eta Lucia Moyak bestea.

## Armagiñak Jo Ta Ke taldearen eguna

Aurten lehen denboraldia betetzen diharduen Armagiñak foball taldeak bere eguna ospatuko du bihar Toribio Etxebarria kalean. Egun osoa hartuko duen egitaraua goizeko 11.00etan hasiko da, txosnaren irekierarekin. 12.30etan joku berezia egingo da, 13.30etan kamisetak zozketatuko dira eta 14.00etan bazkide karnetak entregatuko di-

ra, argazkiekin batera. 16.00etan kamiseten bigarren zozketa egingo da, 18.00etan joku berezia egingo da berriro, 19.00etan elektrotxaragaren ordua izango da eta 21.30etan kamiseten azken zozketa. Taldeak herriko ostalaritzaren eta hainbat den-den babes eskertu nahi du, batez ere Doroti eta Hirurok babesle nagusia.



Iñigo Unanuek ondo merezita du aurtengo edizioaren irudia izatea.

## Eibartarrak nagusi Egueseko duatloi proba mistoan

Deltecoko Andoni Mayo eta Aitziber Urkiolak txapela jantzi zuten aurreko zapa-tuan Egueseko duatloi mistoko proban. Eibarko Triatloi Taldeko beste ordezkari batzuk ere bikain jardun zuten: horrela, Juanjo eta Ibon Romero bederatzigarrenak izan ziren bikotetan, eta taldeka eibartarrak 12. postuan amaitu zuten (Pablo Arakistain, German Amuategi, Mikel Lascurain, Jon Illarramendi, Jon Illarramendi eta Pello Osoro).

## Aritz Lasa - Merino Astelenan etzi

Pilota profesionaleko lehen mailako txapelketaren atariko jokatu da domekan Katedralean. Aritz Lasa urretxuarra eta David Merino errioxarra izango dira kanporaketako protagonistak, etziko jaialdiko partidu nagusian. Jaialdia hasteko, Retegi Bik eta Peñagarikanok Ezkurdia eta Larrinagari egingo diete aurre. Eta, amaitzeko, Apezetxea eta Mendizabal III.aren arteko buruz-buruko jokatu da.



## Somos Eibar Eskubaloia maiatzaren 2tik 4ra saiatuko da mailaz igotzen

Liga irabazi eta gero, egiaren ordua gerturatzten ari zaio eskubaloiko gure lehenengo taldeari; horrela, Ciudad Realen izango du hitzordua Fernando Fernandezek zuzentzen duen taldeak hurrengo asteburuan, lau taldeen arteko lehia. Horko onenak bakarrik eskuratuko du Ohorezko B mailara igotzea. Barixakuan, maiatzaren 2an, eibartarrek Bartzelonako La Roca del Vallesen aurka jokatu beharko dute, alde zuretik aurkari zailena moduan ikusten denaren kontra (Kataluniako multzoko lehena izan da); garrantzitsua izango da, beraz, ondo hastea. Zapatuan A Coruñaiko Calvo Xiria Galiziako multzoko bigarrenari egingo diote



aurre eta, amaitzeko, domekan Ciudad Realeko Alarcos Gaztela - La Mantxako multzoko bigarrenaren kontra lehiatuko dute. Azken aurkari horrek etxean jokatu du.

## Kiroljokoa Saria Ermura joan da aurtan



Foball zaletuen torneo nagusia, Eibarko eta Ermuko ligetako irabazleen artean jokatzeko dena, aurtan Bizkaiko koloreekin jantzita zegoen aurretik (Durangok irabazi baitu Eibarko liga) eta, azkenean, Ermura joan da, Murrakak 2-0 irabazi ziolako Durangori, Ekaitzen bi golekin.

Ohikoa denez, Kopak hartuko dio lekukoa orain Ligari, bihar eta etzi jokatu den lehen jardunaldiarekin: bihar, Alkideba-Mujika, Garajes Garcia-Koskor, Oishi-Txoko eta Durango-Sporting norgehiagokak jokatu dira; eta etzi, EzDok-Azkena, Caserio-Areto eta Esmorga-Iruki.

## Iñigo Elosegik bereganatu zuen Otxoa Memoriala

Aiarako Biran erakutsitako nagusitasuna azaldu zuen berriro Autonervion-Renault taldeko Iñigo Elosegik eta 21 segundoko aldearekin iritsi zen helmugara. Zierbenako txirriindulariak Grosgreencenter taldeko Iñigo Etxarri eta Gorka Urkiolarekin osatu zuen podiuma. Taldeka Atracciones Sanz izan zen garailea, lehiakortasun saria Ulmarko Murgiondorentzat izan zen eta Debabarrena saria Ciclos Iturriagako Imanol Alvarezek irabazi zuen.



## Eibar-Recreativo etzi 12.00etan

Canal Plus-ek zuzenean eskainiko duen partiduan neurtuko dituzte indarrak Eibar FT-k eta Huelvako Recreativok. Garitanoren mutilek zazpi puntuko aldea kentzen die andaluziarrei eta lehen itzulian 1-2 irabazi zuten Huelvan, Moralesen eta Raul Navasen golekin. Bestalde, kapital-zabalkuntza dela-eta, hainbat erakunde egin dira foball taldearen "defendatzaile": Debegesa eskualdeko garapen agentziak eta Premier Bidaia-ek akzioak erosi dituzte, Avia Klubak laguntzak eskaintzen dizkie akziodunei...

## Omenaldia areto-foballeko taldeei

Pinsequeren atzetik, sailkapeneko bigarren postuan dagoen Debabarrena Concepto Egilek Ibarra probintziako beste taldea hartuko du bihar Elgoibarko Olaizaga kiroldegian 18.00etan. Partidua aprobetxatuz, **erreko-nozimendua egingo zaie harrobiko taldeei**: alebinetako Debabarrenari (Gipuzkoako azken play-offa jokatzeko bidean), infantiletako Sukiari (2.a azken play-offean) eta Debabarrenari (Udaberri torneoan), kadeteetako Sukiari (azpitxapelduna izateko bidean) eta jubeniletako King Kong-i (Gipuzkoako txapelduna). Azken honek Euskadiko txapelaren bila jardungo du maiatzaren 4an Elgoibarren jokatu den hiruko finalean, Santutxuko Berriorekin (Bizkaia) eta Olarizu edo Amurriorekin (Araba).

## berriak



### GIMNASIA ERRITMIKOA

Ipuruako lau gimnasta izango dira asteburuan Guadalajaran han jokatu diren Espainiako txapelketetan. Infantil eta kadete mailako Nahia Arguiz, Malen Txurruka eta Elene Varela mazedekin egingo dute ariketa eta Elena Sudepek zinta erabiliko du.



### KARATE

Lezon jokatuak kadete, infantil eta alebin mailetako Gipuzkoako karate txapelketan parte hartu zuten 150 bat neska-mutilen artean izan ziren Anaitasuna/Kalamuako hiru ordezkari: Miren Elorza, Jon Iglesias eta Xuban Hoyos. Azken honek, gainera, brontzezko domina lortu zuen.

## Pedro Arriola saritu dute Eguen Zuri lehiaketan

Arrate Kultur Elkarteak antolatutako XVII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketan lehen saria Pedro Arriolak, iazko irabazleak eskuratu du, "Aratoste larunbata" izenburuko lanarekin; bigarren saria Jon Jimenezentzat izan da, "Lotsagabekua" argazkiarengatik; eta hirugarrena Juan Antonio Palaciosi eman diote. Epai-mahaia Felipe Loiola eta Felix Morquecho argazkilariak osatu dute eta, lehiaketara aurkeztutako argaki guztien kalitatea azpimarratzearekin batera, lehiakide guztiei euren partaidetza eskertu nahi diete. Hilaren 30era arte Topalekuan zabalik egongo den erakusketan lan irabazleak eta lehiaketara aurkeztutako besteak ikusteko aukera izango da.



Arriola iazko saria jasotzen. LEIRE ITURBE

## Alvaro Garridoren piano kontzertua

Maiatzaren 8an, 20.30etan "Klasikoa denentzat" piano kontzertua emango du Alvaro Garridok (5 euro) Coliseoan. Emanaldiak hiru proiektu ezberdin aurkeztuko dituzten beste horrenbeste zati izango ditu: lehen zatian Chopin ("Nocturno op.9 no.1"), Debussy ("Claro de luna") eta Albeniz ("Cuba", gauekoa) izango dira protagonista; bigarrenean Albenizen "Rumores de la Caleta", Granadosen "Andaluza" eta Albenizen "Asturias" eskainiko ditu; eta hirugarren zatian Chopinen "Balada no.1", Granadosen "Allegro de concierto" eta Liszten "Rapsodia hungara no.2".



Alvaro Garrido  
Clásico para todos



## Sostoaren kontzertu arrakastatsua

Urtero lez, apirilaren 12an Sostoa abesbatzak kontzertu sakroa eskaini zuen Karmelitetan eta oraingoan Durangoko Doinuzahar abesbatzak lagundu zion. Bertara joandakoak pozarren irten ziren emanaldia eta gero.

## "59 segundos" lehiaketa irabazi du Juan Palaciosek

Juan Palacios eibartarrak irabazi du CTL-Imagen y Sonido Iruñeko eskolak antolatutako Europako "59 segundos" ikus-entzuzko lehiaketaren lehen edizioa, Fatema Abdoolcarimekin batera egindako "The Tibetan Spider" izenburuko lanarekin. Nafarroako lan onenari aipamen berezia Ignacio Uncetak jaso zuen, "Un dia cualquiera" izenburuko lanari esker eta, horrez gain, Berlingo Markus Schanbachen "Aufschwung" lan-esperimentalari arreta berezia eskaini diote epai-mahaikideek. Sari banaketa ekitaldia apirilaren 8an egin zen Nafarroko Filmotecan, baina lehen sariaren irabazleak ezin izan ziren bertan egon, biak Danimarkan, Kopenhagen bizi direlako.



lingo Markus Schanbachen "Aufschwung" lan-esperimentalari arreta berezia eskaini diote epai-mahaikideek. Sari banaketa ekitaldia apirilaren 8an egin zen Nafarroko Filmotecan, baina lehen sariaren irabazleak ezin izan ziren bertan egon, biak Danimarkan, Kopenhagen bizi direlako.



## "Atlas de geografía humana" antzezlan

Maiatzaren 9an 20.30etan "Atlas de geografía humana" eskainiko dute Centro Dramático Nacional eta A Priori Producciones konpainiek Coliseoan (16 euro). Almodena Grandesen testuari jarraitzen dion antzezlan Juanfra Rodríguezek zuzentzen du eta taula gainean Arantxa Aranguren, Nieve de Medina, Ana Otero eta Rosa Savoini antzezleek jardungo dute, editorial handi batean geografía atlas bat prestatzen beharrean dabiltzan lau emakumeren azalean sartuta eta istorioak aurrera egin ahala, bakoitzaren izaera eta bestelakoak agerian geratzen joango dira.



## Petti eta Joseba B. Lenoir Duo domekan Bektokixan

Berreibar Ekimen Kulturalak antolatuta, aurreko domekan ekin zioten kontzertu programazioari Bektokixan (Bittor Sarasketa, 7-1 ezker-rra) Mursegok eta Mobydick-ek eta domeka honetan, berriz, Petti eta Joseba B. Lenoir Duok jardungo dute 19.00etatik aurrera. Teoriatik praktikara saltoa eman dute Berreibar Ekimen Kulturalako kideek eta, erabili bariko lantegiak biziberritzeko



aukera egon badagoela erakutsi nahian, sa-soi batean BH lantegia egon zen eraikinean hutsik zegoen lokala atondu dute, ekainera bitartean hainbat ekimen kultural bertan eskaintzeko.

## laburrak



### EIBAR KANTUAN

Udalaren eta Eitb-ren laguntzari esker, Eibarko Txirrindulari Elkartek Eibar Kantuan jaialdiaren edizio berria antolatuta du biharko. Kontzertua Astelena frontoian egingo da, 22.00etatik aurrera eta aurtengo kartela Musika Eskolako Mariatxia, Mikel Urkola, Saras y Lisol, Voces y Cuerdas, Duo Plaentxi eta Trio Medianoche osatzen dute. Sarrerak 10 euro balio du.

### HARIXA EMOTEN

Euskarazko irakurketa klubaren azken saioa maiatzaren 6an egingo da Juan San Martin liburutegian, 19.00etan hasita: Iban Zaldúa izango da ikasturteko Idazlearekin Harixa Emoten azken saioan, "Etorkizuna" ipuin liburuaren inguruan berbetan. Kurtso berriarekin batera, urritik aurrera berriz ere martxan ipiniko da ...eta kitto! Euskarazko Elkartek eta Juan San Martin liburutegiak elkarlanean antolatutako ekimena.

## "Itsasoaren emazteak" dantza ikuskizuna

Oinkari Dantza Taldeak eta Hika Teatroak "Itsasoaren emazteak" dantza ikuskizuna es-

kainiko dute maiatzaren 1ean, 20.30etan Coliseoan (8 euro). Agurtzane Intxaurragak zu-



zenduta, taula gainean Oinkari dantza taldeko dantzariak eta Miren Gojenola eta Agurtzane Intxaurranga aktoreak ikusteko aukera izango da euskal dantza tradizioaletik abiatuta, Euskal Herriko kostaldeko arrantzaleen emazteen bizipenak kontatzen dituen ikuskizun honetan. Berrogeita hamar dantzari, lau musikari eta bi aktore batuko dira eszenatokian.

SENEREn  
Maiatzak  
11



J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN EIKARTEA  
...ETA KITTO! EUSKARA EIKARTEA



AUTOBUS  
ZERBITZUA

Goizeko  
09.00etan  
irtenda **12€**



Arratsaldeko  
19.00etan  
buelatzeko

M<sup>a</sup> JOSE RUIZ DE PORRES Doktorea  
GINEKOLOGOA

Urkizu, 13

943-120200 eta 943-120204


LEKUALDAKETA  
Eibarko  
Centro Médico  
Osasundegia



cmeibar@hotmail.com

www.centromedicoeibar.es

ZU ZAINTEKO ZERBITZU ONENA  
eskaintzeaz gain, profesionaltasunari  
eta pazientearekiko tratu atseginari  
eusten jarraituko diogu.



...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta IV. Euskararen Transmisioa Mintegia egingo da maiatzaren 6an Portalean. Egun osorako prezioa 25 eurokoa da (bazkaria barne) eta parte hartu nahi duenak apirilaren 30era arte izango du izena emateko aukera, 943200918 telefono zenbakira deituta edo normalizazioa@etakitto.com helbidera idatzita (Ainara Labado). Informazio gehiago behar izanez gero, aipatutako telefono zenbakira deitu edo normalizazioa@etakitto.com helbidera idatzi. Mintegian hitzaldia emango dutenen artean Asier Arrieta Elorza eibartarra dago eta Euskal Herriko Uibertsitatean Publizitate klaseak ematen dituen irakasleak bere hitzaldian azalduko dituen hainbat kontu aurreratu dizkigu.

**ASIER ARRIETA (Publizitate irakaslea):**

## "EUSKARA MODAN egotea lortu behar dugu"

**- "Zer, nori, nor" izenburuari jarraituko diozu zure interbentzioan, nondik nora joteko asmoa daukazu?**

Mintegira doan jendeari ganorazko publizitatea egiteko zer pauso jarraitu behar diren azaltzen ahaleginduko naiz. Beste gauza askotan bezala, honetan ere estrategiak bere garrantzia dauka. Zuhaitz baten sustriak ez badira egoki errotzen zuhaitza nekez haziko da eta publizitatean ere oinarri egokiak aukeratu behar dira, nahi dugun emaitza edo eragina lortzeko. Horregatik, ezertan hasi baino lehen ondo aukeratu behar dira zer esan nahi dugun, nori esan nahi diogun, nori esango duen, nola esango duen... horiek azalduko ditut.

**- Tesia euskararen aldeko publizitate instituzionalaren inguruan egiten zabilta. Zeintzuk dira azterketa horretatik orain arte aterata zenituen ondorio nagusiak?**

Euskera kanpainen arazo nagusia iragarle asko daudela da. Demagun automobil bat saldu nahi dugula eta, horretarako, kontzesionario bakoitzak bere kanpaina egiten duela, saltzaile guztiek kanpaina bakarra, bat komunean egin beharrean. Argi dago horrela mezuak bere indarra galtzen duela.

Hala ere, euskararen aldeko kanpainak egiten dituzten instituzio, euskera elkarte eta beste talde guztiak denak elkarrekin ados ipintzea oso zaila, ezinezkoa dela onartu behar dugu. Pentsa iragarle bakar batekin ados ipintzea zaila izaten dela sarritan, zer esanik ez euskararen inguruko guztiak ados ipini beharko balira! Horrekin batera, kanpaina batek bete beharreko gutxieneko baldintza batzuk dauzka, ez da nahikoa ideia bat izatea, ideia hori garatzeko orduak eta orduak sartu behar dira beharrean.

**- Publizitatearen asmo nagusia produktu bat saltzea da, baina "produktua" hizkuntza bat denean zailagoa da asmo hori betetzea?**

Hotzean horrela botata gogorra iruditu arren, euskera Coca-Cola bailitzan saltzen asmatu beharko genuke. Baina hizkuntza saltzeko orduan kontuan hartu beharreko beste faktore batzuk sartzen dira jokoan. Hasteko, euskarak badauka puntu ideologiko bat eta horrek ez dio kontu honetarako laguntzen. Faktore sentimentala ere hor dago ("nire hizkuntza da eta maite dut"), beste askorentzat derrigorrez ikasi beharreko zerbait izango da...

**- Datuek diotenez, euskararen ezagutzak gora egin du, baina erabileran ez dute horren islarik somatzen. Zer gertatzen da hori horrela izateko?**

Ez da erraza ulertzen, fenomeno honetan ulertzen ez ditudan misterio asko sartzen dira tartean. Adibidez, unibertsitatean bertan, nik klase berberak ematen ditut euskaraz eta gazteleraz eta konturatuta nago erdal adarrean euskaldun asko dagoela matrikulatuta. Eta euskal adarreko ikasleak euren artean gazteleraz egiten dute berba. Bestalde, hemen euskaraz egiten ez duten askok kanpoan daudenean euskeraz egiten dute. Ez dakit zergatik gertatzen diren horrelakoak, baina urteetan erabili den "euskara gaixuaren" teknika ez da baliagarria, fribolitatea dirudien arren euskera modan egotea lortu behar dugula pentsatzen dut, euskaraz harro egotea falta zaigu, modak ohitura sortuko luke eta horrela euskara gehiago erabiltzea lortuko genukeela uste dut. Artzek idatzi zuen moduan, "hizkuntza bat ez da hiltzen ez dakitenez ikasten ez dutelako, dakitenez hitz egiten ez dutelako baizik", horren inguruko kontzientzia hartu behar dugu.

### IV. Euskararen Transmisioa MINTEGIA (maiatzak 6, martitzena, Portalean)

**08.45-09.00:** Akreditazioa eta dokumentazioa. **09.00-09.15:** Ongi-etoria. **09.20-09.55:** "Hizkuntza eta burmuinaren arteko elkarrizketa". Saioa Larraza, BCBL. **10.00-10.25:** "Kiribilduz: familia transmisioaren proiektuaren bila". Naiara Martin, Elgoibarko Izarra. **10.30-10.55:** "Gazteen euskararen erabilera Eibarren". Ainara Lavado, ...eta kitto! Euskara Elkarte. **11.00-11.40:** "Ikasle etorkinak eta euskararen ikaskuntza eskolan". Ibon Manterola, EHU. **11.45-12.00:** ATSEDENA. **12.05-12.30:** "Euskararen transmisioa familietan Nafarroako ahozko ondarean oinarrituta: Xaldun Kortin. Jolastu gurekin!". Maite Lakar eta Patri Arburua. Euskokultur Fundazioa. Bortzirietako Euskara Mankomunitatea. **12.35-13.00:** "Transmisioa: Aiaraldetik dekalogo bat". Eduardo Fraile. Amurrioko Aresketa Ikastola. **13.05-13.50:** "Familia euskarari iraurazteko egungo estrategietan". Paula Kasares. UPNA. **14.00-15.35:** BAZKARIA. **15.40-16.20:** "Zer, nori, nor". Asier Arrieta. EHU. **16.25-17.50:** Mahaingurua. Dinamizatzailea: Jaime Altuna. Urbintxa Eskola. **17.55-18.00:** Agurra.

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Bidaltzekotan: [publizitatea@etakitto.com](mailto:publizitatea@etakitto.com)



Zorionak, ANE, zure bigarren urtebetetzian. Muxu haundi-haundi bat etxeko danen partez.



Zorionak, PAULA, hillaren 21ian bost urte bete zenduazena eta. Bost muxu potolo gure printzesari, famelixaren partez.



Zorionak, BITTOR, mutil haundi, gaur bi urte egitten dozuz-eta. Maddi, Patxi, Naia eta Jonen partez.




Zorionak, ASIER, zure lehelengo urtebetetzian! Aitxite, amama eta beste famelixa guztiak muxu haundi bat bialtzen deutsugu!



Zorionak, ANDER, zure 15. urtebetetzian. Muxuak famelixaren partez.



Zorionak, AINHIZE, gaur sei urte egitten dozuz-eta!! Lagunen eta famelixaren partez.



Kaixo, NAHIA! Zorionak, aittitta JON eta amama PILI!



Zorionak, NAIA, zure bigarren urtebetetzian. Markel zure jolas lagunaren partez.



Zorionak, MARKEL Lasuen, astelehenian zure bigarren urtia bete dozu-eta. Patxo potolua aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, ERMINIA. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARIA (bost urte) eta NEREA (16), gaur urtiak betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, PAUL, eguenian zortzi urte egin zenduazena eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, OIHENART, gure mutiltxuak 18xan hiru urte egin zittuan-eta. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta Aioraren partez.



Zorionak, MAI, atzo urtiak bete zenduazena eta. Jarraitu irrifar politt hori eskintzen. Muxu haundi bat zure ekipuaren partez.



Zorionak, IKER Lage Castro, apirillaren 16xan 13 urte egin zenduazena eta. Segi holan. Famelixaren partez.



Zorionak, IRATI, maiatzaren 1ian sei urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OSKAR eta NAHIA (bost urte), domekan eta martitzenian urtiak bete dozuz-eta. Laztan haundi bana famelixakuen eta laguneren partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**  
**26an: 17.00, 19.45, 22.30**  
**27an: 17.00, 20.00**  
**28an: 20.30**

**"Philomena"**  
 Zuzendaria: Stephen Frears



**(2 ARETOAN)**  
**26an: 17.00, 19.45, 22.30**  
**27an: 17.00, 20.00**  
**28an: 20.30**

**"300. Origen de un imperio"**  
 Zuzendaria: Noam Munro



**(ANTZOKIAN)**  
**26an: 19.45**  
**27an: 20.00**  
**28an: 20.30**

**"Pompeya"**  
 Zuzendaria: Paul Anderson



**(ANTZOKIAN)**  
**26an: 17.00**  
**27an: 17.00**  
**"El tour de los Muppets"**  
 Zuzendaria: James Bobin



## BARIXAKUA 25

### KONTZERTUA

**23.30.** Margo&Cilker: "The crazy wheels band". Ez Dok tabernan.

## ZAPATUA 26

### ARMAGIÑEN EGUNA

**11.00.** Txosnaren irekiera.  
**12.30.** Joko berezia.  
**13.30.** Kamiseten zozketa.  
**14.00.** Bazkide karneta ematea eta argazkia.  
**16.00.** Kamiseten zozketa.  
**18.00.** Joko berezia.  
**19.00.** Elektrotxaranga.  
**21.30.** Kamiseten zozketa. Toribio Etxebarria kalean.

### BERTSO-BAZKARIA

**14.30.** Ander Zulaika (Itziar), Txaber Ormazabal (Arrigorriaga), Jon Mikel Mujika eta Aimar Goenaga (Eibar). Gai-jartzailea: Ion Mtnez. 16 euro. Deporren. Hankamotxak antolatuta.

### DUATLOIA

**16.45.** XXIII. Eibarko Duatloia. Untzagan.

### ZAPATUKO IPUINA

**18.00.** "Belarriak zabaldua ipuinak datoz eta". Badut. 3 urtetik gorakoentzat. Umeen liburutegian.

### EIBARKO I. JARDUNALDI ANTIKAPITALISTAK

**19.00.** "Formas de organizacion obrera". Juan Manuel Olarieta. "Represion hacia la juventud combativa". Pablo Hasel. Poesia errezitala. Aitor Cuervo.  
**22.00.** Kontzertuak: Ostioi! eta Pablo Hasel (4 euro). Gaztetxean.

## SANTA KURUTZEKO JAIAK

**21.00.** Bertso-afaria: Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia. 28 euro. Santa Kurutzeko Jai batzordeak antolatuta. Ixua jatetxean.

### EIBAR KANTUAN

**22.30.** Musika Eskolako Mariatxia, Mikel Urkola, Saras eta Lisol, Voces y Cuerdas, Duo Plaentxi eta Trio Medianoche. 10 euro. Astelena frontoian.

### DJ GAUA

**00.00.** Panda eta Ulearen eskutik. Beleko tabernan.

## DOMEKA 27

### KONTZERTUA

**12.30.** Cielito Musika Banda. Coliseoan.

### IPUIN KONTALARIA

**17.30.** Ipuin kontalaria. Beleko tabernan.

### KONTZERTUA

**19.00.** Petti eta Joseba B. Lenoir Duo. Bektokixan (Bittor Sarasketa, 7).

## ASTELEHENA 28

### IKASTEN

**10.00.** "Mirando al cielo" astronomia topaketa. Beheko Tokian.

## EGUAZTENA 7

### MENDI PROIEKZIOA

**19.30.** "Eibarko mugarren ibilbidea" emanaldia. Periko Iriondo. Klub Deportiboan.

## MARTITZENA 29

### IKASTEN

**10.00.** "¿Que recordaran de nosotros? Los archivos familiares en el siglo XXI". Yolanda Ruiz udal artxiboko arduraduna. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**17.00 eta 18.30.** Joskintza tailerra. Portalean.

## EGUAZTENA 30

### IKASTEN

**11.00.** Kafe-tertulia: "Viajes en la tercera edad". Untzaga jubilatatu etxean.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres parrokian.

## EGUENA 1

### MAIATZAREN 1-A

**12.00.** Manifestazioa, LABek deituta.  
**15.00.** Herri bazkaria. Untzagan.

### DANTZA

**20.30.** "Itsasoaren emazteak", Oinkari Dantza Taldea eta Hika Teatroaren eskutik. 8 euro. Coliseoan.

## ZAPATUA 3

### SANTA KURUTZEKO JAIAK

**10.30.** Kanpaiak.  
**11.00.** Meza, Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde. Ondoren hamaiketako. Ermitan.  
**12.00.** Oier Balzola eta Unai Andonegi trikitilariak.  
**12.30.** Haurrentzako jolasak.  
**13.00.** Asto eta giza proba. Auzoko neska-mutilen taldea Agarre Azpiko iazko asto txapeldunaren aurka.  
**14.30.** Bazkaria Ixua jatetxean. Erromeria Balzola eta Andonegirekin. Santa Kurutzen.

### HITZALDIA

**19.00.** "Los valores eibarreses de los Zuloaga 1794-2014". Ignacio Suarez Zuloaga. Portalean.

## DOMEKA 4

### SANTA KURUTZEKO JAIAK

**10.30.** Kanpaiak.  
**11.00.** Meza nagusia Santa Kurutzeko ermitan. Piskolabisa.  
**12.00.** Soka dantza, Kezka taldea eta Usartza txistulari taldearekin.  
**12.30.** Jolasak haur eta helduentzat.  
**14.30.** Jaien amaiera, kanpaiekin. Santa Kurutzen.

## MARTITZENA 6

### HARIXA EMOTEN

**19.00.** Iban Zaldua-ren "Etokizuna" ipuin liburuarri buruzko solasaldia. Liburutegian.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Sekula ikusi ez dituzun kolore bereziak nagusituko dira zure bizitzan. Aurretik ezin imaginatu: ortzadarreko bizienak.

### TAURUS

Datorren asteko egun bakoitza aurrekoa baino hobea izango da. Beraz, pentsa nola egongo zaren aste amaieran... zorutzen!

### GEMINI

Zerbait ustela jango duzu eta ez duzu batere onik egingo. Argi ibili ahora zer eramaten duzun: usaindu, gutxienez.

### CANCER

Zure kezka handiena praka horiekin zein zapata jartzea bada, lasai egon zaitezke. Zurea bai bizipoza. Bejondeizula!

### LEO

Polen gorrotagarria! Alergia ez bada, dena hori-hori eginda dagoela izango da... Ez, ez, udaberriak ez dizu bakean lagatzen!

### VIRGO

Guztiz zoragarria izango duzu astea, emozio eta poztasunez bete. Zergatik den? Jakingo duzu bere momentuan.

### LIBRA

Afari ederraz gozatuko duzu lagun berezi batekin... Janari artean pasioa haziko da eta... nola amaituko den? Zuen kontua da.

### SCORPIUS

Lagun bati berri txar bat esatea ez da batere eroso, eta zuri tokatuko zaizu oraingoan. Psikologoarenak egin behar!

### SAGITTARIUS

Nola aldatzen diren gauzak egun batetik bestera. Horrela ezin duzu etorkizunerako planik egin. Badakizu: bizi momentua.

### CAPRICORNIUS


Sekretuak beti (edo ia beti) irtetzen dira argira. Beraz, hobe duzu zintzoa izan eta egia esatea beti. Zu zintzoa zara, ezta?

### AQUARIUS

Lagunak brometan dabilta eta zu ez zara konturatzen. Umore gehiagorekin hartu behar duzu bizitza: irrifarre hori azaldu.

### PISCIS

Gai baten inguruan ez badakizu ezer, zergatik eztabaidatzen duzu? Besteen aurrean txarto gelditzen dena zu zara!



## erakusketak

### ✓ Apirilaren 27ra arte

**EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAREN** erakusketa kolektiboa. *Portalean.*  
**“EIBARKO IGNACIO ZULOAGAREN EGUNGO ISLAK”** ikasleen erakusketa. *Portalean.*  
**EGUEN ZURI** lehiaketako argazki erakusketa. *Topalekuan.*

### ✓ Apirilaren 30era arte

**“ARATOSTEAK”** argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*  
**“ARATOSTEAK”** argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

## hildakoak

- Gerarda Fernandez Saguar. 78 urte. 2014-III-31.
- Isidro Auzmendi Sanpedro. 87 urte. 2014-IV-6.
- Aitor Zarrua Arginzoniz. 43 urte. 2014-IV-10.
- Iñaki Apellaniz Zumeta. 48 urte. 2014-IV-10.
- Eusebio Gorrotxategi Askasibar. 77 urte. 2014-IV-12.
- Jose Luis Sanchez Fernandez. 60 urte. 2014-IV-12.
- Armando Bustinduy Otaduy. 89 urte. 2014-IV-14.
- Severina Marroquin Kortazar. 97 urte. 2014-IV-14.
- Amelia Fariñas Guede. 91 urte. 2014-IV-15.
- Juana Ajuria Etxeberria. 74 urte. 2014-IV-18.
- Bladuno Carrasco Gañan. 68 urte. 2014-IV-19.
- Pilar Valero Baquerin. 82 urte. 2014-IV-19.
- Felisa Gainzarain Ruiz. 83 urte. 2014-IV-20.
- Pedro Etxeberria Arriola. 82 urte. 2014-IV-22.

## jaiotakoak

- Marcos Gonzalez Fernandez-Reyes. 2014-IV-3.
- Satch Baraili. 2014-IV-5.
- Isabel Pita Lozano. 2014-IV-5.
- Mikel Medina Izquierdo. 2014-IV-6.
- Julen Medina Chico. 2014-IV-8.
- Khalid Tardio Srassi. 2014-IV-10.
- Bilal El Zarboun. 2014-IV-11.
- Patxi Errasti Lakunza. 2014-IV-17.

## farmaziak

- ✓ **barixakua 25**  
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **zapatua 26**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **domeka 27**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **astelehena 28**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **martitzena 29**  
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **eguztena 30**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **eguna 1**  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- ✓ **barixakua 2**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **zapatua 3**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **domeka 4**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **astelehena 5**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **martitzena 6**  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- ✓ **eguztena 7**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguna 8**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **barixakua 9**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

**GAUEZ BETI**  
**Azkue (T. Etxebarria, 4)**

## SUDOKUA

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   | 9 | 8 |   | 1 | 6 | 7 |
|   | 2 |   |   | 9 |   |   |   |
| 5 |   |   |   |   |   | 2 |   |
| 3 |   |   | 8 |   |   |   | 5 |
|   | 9 | 7 |   |   | 8 | 1 |   |
| 1 |   |   | 2 |   |   |   | 3 |
|   | 5 |   |   |   |   |   | 6 |
|   |   |   | 5 |   |   | 8 |   |
| 9 | 1 | 4 |   |   | 8 | 3 |   |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 7 | 3 | 4 | 2 | 6 | 8 | 9 | 1 |
| 9 | 8 | 2 | 1 | 3 | 7 | 4 | 6 | 5 |
| 4 | 6 | 1 | 9 | 8 | 5 | 2 | 3 | 7 |
| 7 | 4 | 5 | 2 | 1 | 9 | 3 | 8 | 6 |
| 2 | 9 | 8 | 6 | 5 | 3 | 7 | 1 | 4 |
| 3 | 1 | 6 | 7 | 4 | 8 | 9 | 5 | 2 |
| 6 | 5 | 9 | 8 | 7 | 4 | 1 | 2 | 3 |
| 8 | 2 | 7 | 3 | 6 | 1 | 5 | 4 | 9 |
| 1 | 3 | 4 | 5 | 9 | 2 | 6 | 7 | 8 |

AURREKOEN EMAITZA

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia .....943 03 25 00
- Torrekoa .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.50, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.50etatik 13.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.50etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Pisua alokagai Jardinetan. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Denak kanpora begira. Tel. 690-018786.
- Pisua hartuko nuke errentan. 3 logela, egongela erta komunarekin. Tel. 632-192408.
- Apartamentua alokagai Aste Santurako Landetako Vieux Boucaun, Hosesegor inguruan. Tel. 943-701635.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Asua-Errekan. 27 m<sup>2</sup>. Aukera. Tel. 688-814562.

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Txomon. Tel. 943-207156.
- Hiru lokal (35, 40 eta 65 m<sup>2</sup>koak) alokagai -banaka edo batera- Matxaria kalean, tren estazioetik 150 metro-ra. Guztiz berrituta. Tel. 672-410804.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
- Emakumea eskaintzen da soziedadek garbitzeko. Tel. 600-332954.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 617-966358.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-121252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka eta baita oporretan ere. Tel. 638-338816.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia ospitalean. Orduka. Tel. 631-203287.
- Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko. Sei hilabeteko esperientzia. Tel. 631-548678.
- Emakumea eskaintzen da fruitategian lan egiteko, nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 606-354982.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-429711.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 653-075865.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 689-571882.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 671-972733.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 608-147559.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Baita gauz ere. Tel. 632-253170.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Baita gauz ere. Tel. 669-311385.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 636-362251.
- Emakumea eskaintzen da goizez sukaldari-laguntzaile jarduteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 688-619470.
- Gizona eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko, adreiluzko 2. mailako ofizial moduan eta sukalde-zaintzaile jarduteko. Tel. 632-192408.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Interna. Tel. 631-343232.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Tel. 632-981779.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta fisioterapiari jarduteko. Tel. 636-585930.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-230789.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 619-041821 eta 943-744033.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu, sukaldari-laguntzaile jardun eta baserrian edo eraikuntzan lan egiteko. Tel. 688-302653.
- Emakumea eskaintzen da gauz nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-506763.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-805363.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-722291.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 11 urteko esperientzia. Tel. 639-962219.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 653-075865.
- Masajista profesionala eta Medikuntza Energetikoan aditua eskaintzen da etxerik-etxe lan egiteko. Lehenengo saioa doan. Tel. 656-927561.

- Emakume eibartarra eskaintzen da goizez lan egiteko. Erizain-laguntzaile tituluduna. Tel. 616-607121.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko: etxeak, tabernak, pegorak. Orduka. Tel. 699-232823.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 633-889235.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-836130.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. 25 urteko esperientzia tor-nuan lanean. Tel. 633-892829.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-814484.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta etxeko edo baserriko lanak egiteko. Tel. 622-321095 eta 631-506108.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserriko lanak egiteko, etabar. Tel. 686-077316.
- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 646-821678.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-362251.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 619-176847.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 674-342769.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 633-709277.
- Erizain-laguntzaile eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 620-516728.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta asteburuetan. Tel. 655-677035.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 662-231301.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo elbarrituak zaintzeko gauz, etxean zein ospitalean. Tel. 602-561469.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 682-688813.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 664-584022.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 617-800314.

### 4.2. Langile bila

- Pertsona arduratsua behar da nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 692-685751 eta 943-201726.
- Kamarera euskalduna behar da jate-txe baterako. Tel. 620-810120.
- Ilea-paintzaile behar da arratsaldez ilea-paindegi batean lan egiteko. Esperientziaduna. Tel. 943-702024.
- Langileak behar dira harategi baterako. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a: inakigr@yahoo.es

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

- Batxilergo 2. mailako Biologia eta Kimika irakasle partikularra behar da. Tel. 646-344937.

### 5.2. Eskaintzak

- Lizentziatua eskaintzen da maila desberdinetako ikasleei (LH, DBH, Batxilergoa...) klaseak emateko. Euskaraz eta erderaz. Banaka edo taldeka. Tel. 699-495279.
- Igarle izateko eta tarot ikastaroak ematen ditut. Tel. 685-739355.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Gitarra espainiarra salgai. Raimundo markakoa. Tel. 658-715978.
- Ohe artikulatua eta garabia salgai. Gutxi erabilitakoak. Koltxo gainekoa-ekin. Tel. 655-110362.

### 6.2. Eman

- Neskaren baserriar jantzia oparitzen da. 14 tallakoa. Tel. 658-715978.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Apirilaren 15ean Egogaineko (autobus geltokiaren ondoan) umeen parkean ahaztu egin genuen jolasteko biki-ien aulkia (gorria eta zuria) eta bi pan-pin. Ite horia duen panpinak balio sentimental handia du umearentzat. Eskertuko da bueltatzea. Tel. 653-053630. Maider.

### 6.4. Bestelakoak

- Eibar FT-ko kamiseta erosiko nuke. 6 urterako neurrikoa. Deitu arratsaldez. Tel. 637-012625.



**Ignacio  
Zuloaga  
Institutua**

**EIBAR**



**Aurrematrikula Maiatzaren 5etik 15era**

**Batxilergoak:** Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



**Elkartrukeak**



**Alemania - Ingalaterra**



Jardiñeta 3 Eibar · Tel.:943208349 · Fax:943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail:012055aa@hezkuntza.net

**IES UNI BHI**  
EIBAR-ERMUA

**AUKERA ZABALENA!**

**HEZIKETA ESKAINTZA:  
A ETA D EREDUAK**

**BATXILERGOAK**

Zientziak eta Teknologia  
Humanitateak eta gizarte zientziak  
Aukerako irakasgaien eskaintza zabalena

**PROIEKTUAK ETA JARDUERAK**

Nazioarteko ikasle-trukeak  
UNI Encounter  
Hizkuntzaren normalkuntza  
Osasunarentzako programa  
Urrats Bat  
Agenda 21  
Informatika ingelesez

TEL: 943 20 84 44  
www.iesunibhi.com  
uni@iesunibhi.com



twitter @UniEibarErmua



www.facebook.com/iesunibhi

**AURREMATRIKULA:  
MAIATZAREN 5ETIK 15ERA**

**ATE IREKIEN JARDUNALDIAK**

**MAIATZAREN 10EAN**

**11:00ETATIK 13:00ETARA**

## **Asko dira** gure horts-kliniketara etortzeko arrazoiak



**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko  
arreta jaso dezazun

 **innova**dental  
CLINICAS



### **Createch Medical-en**

etorkizuna gerturaten dizugu,  
implanteetan egiturak egiten espezializatutako  
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

 **bista eder**  
clínica dental - horts klinika

Bista Eder, 19 - Bajo  
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: [bistaeder@innovaentalclinicas.com](mailto:bistaeder@innovaentalclinicas.com)

[www.innovaentalclinicas.com](http://www.innovaentalclinicas.com)

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

 **innova**dental [ **Azpeitia** ]  
clínica dental - horts klinika

José de Artetxe, 5  
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: [innovaazpeitia@innovaentalclinicas.com](mailto:innovaazpeitia@innovaentalclinicas.com)

[www.innovaentalclinicas.com](http://www.innovaentalclinicas.com)